

HEZKUNTZA JARDUERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK, NAFARROAKO IKASTETXEETAN JARDUERA PRESENTZIALA ETEN ONDOREN

A) OHAR OROKORRAK

COVID-19aren pandemiak gizarte osoari eragiten dio, eta hezkuntza komunitate guztiaren erantzun koordinatua beharrezkoa da, hezkuntzaren arloan bermatu dadin konstituzioak berdintasunerako aitortzen duen eskubidea.

Bizi dugun ezusteko egoera traumatiko honetan, jarduera presentziala etetearen ondorioz, etengabeko berrantolaketa prozesu batean gaude, zuzendaritza taldeen, irakaslan koordinatzeko organoen, tutoreen, irakasleen eta hezkuntzako ikuskarien jarduerari eta jarduketei dagokienez. Horrek funtsezko helburu bat du: ikasle bakar batek ere ez galtzea ikasturtea COVID-19aren eraginez edo hark irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan dituen ondorioen eraginez.

Hala ikasleak nola irakasleak egiten ari diren ahalegin itzel horrekin, orain, lortu behar dugu bermatzea ikasketen ebaluazio zuzena eta bidezkoa egiten dela, arreta berezia jarritz 2019-2020 ikasturteko hirugarren hiruileko honetan dauden egoera desberdinei.

Hezkuntza komunitateko sektoreetatik zenbait iradokizun jaso ditugu, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu. Horiek ikusirik, Hezkuntza Departamentuak, bere eskumenen esparruan eta Hezkuntzako Konferentzia Sektorialak harturiko erabakiekin bat, jarraibide hauek eman ditu, lehenago emandakoen osagarri, ikasturtearen azkeneko asteetan ikastetxeen funtzionamendua orientatzeko. Jarraibide hauek eguneratzen ahalko dira, beharrezkotzat jotzen diren zehaztapenak egiteko

1. Eskola egutegia

1. **Ikasturte bukaerako egutegiak** bat egingen du, oro har, 2019-2020 ikasturteko eskola egutegia eta ikasketetako ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak ematen dituzten urteko ebazpenetan ezarritakoarekin. Ekainean eta uztailan ez da izanen eskola egun osagarririk.

2. Ikasleen parte-hartzea

1. Hezkuntza Departamentuak **behar diren baliabideak jarriko ditu** urrutiko hezkuntza jarduerarako sarbidea lehendik izan ez duten ikasleentzat, ahalik eta gehienentzat, lehenbailehen has daitezzen hezkuntza jarduera horretan. Ikasle hori identifikatzeko eta segimendua egiteko, ezinbestekoa izan da eta izanen da tutoreak, irakasle taldeak eta ikastetxe bakoitzeko arduradunak elkarlanean aritzea.

2. Ikasleen eskura jarriko dira **ekipo informatikoak, txartelak eta routerrak**, konektagarritasuna errazteko.

3. Aurreko puntua betetzea ezinezkoa bada, **material didaktikoak** emanen zaizkie sarbide digitalik ez duten ikasleei.

3. Hezkuntza jarduera ez-presentzialean, Hezkuntza Departamentuak edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarritako **tresnak, programak eta aplikazioak** erabiliko dira, garapen metodologiko berriak ahalbidetzeko.

4. Ikastetxeak ikasleei eta familiei jakinaraziko die zer-nolako aldaketak egin diren hezkuntza arretan, hezkuntza jarduera ez-presentziala dela-eta, eta, bereziki, azalduko die nola aldatuko den ebaluazio prozesua eta egindako lanaren eta lortutako gaitasunen balorazioa.

3. Eskola jarduera

1. Ikasturteko hirugarren hiru hilekoko eskola jarduera **urrutiko modalitatean** gauzatuko da, edo, posible bada, modalitate presentzialean, osasun arloko agintaritzek ezartzen dutenari jarraikiz.

2. Arreta ez-presentzialera **egokituko da saio arruntetan erabili ohi zen egitura**: aurkezpena eta azalpenak; ikaskuntzen garapena; jarduerak, lanak eta zereginak; bateratzea; zuzenketa; zalantzak argitzea; ikasleek lortutako ikaskuntza maila gainbegiratzea.

3. **Laguntzarako baliabideak antolatu eta egokituko dira** (pertsonek eta denborak) hezkuntza laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleei arreta emateko, eta bermatuko da **Pedagogia Terapeutikoko eta Entzumen eta Hizkuntzako espezialistek esku hartzen** dutela hala behar duten ikasleekin.

4. Tutoretzako arreta

1. Irakasleak astean behin **harremanetan jarriko dira** ikasleekin, banaka (telefonoz, posta elektronikoz edota online), haien egoera emozionala ona izan dadin.

2. Ikasleei orientabideak emanen zaizkie, errazagoa gerta dakien **ikaskuntza aktiboko errutinak** ezartzea eta **ezaguerak barneratzeko prozesuan haien autonomia** erregulatzea.

3. **Tutoretza arretako ikasleendako berriazko jarduerak**, tutoretza planean jasotakoak, egoera berrira **egokituko dira**.

4. Etapa eta maila bakoitzean aurreikusitako **orientazio akademikoa eta profesionala** ere egoera berrira egokituko da: informazioa eta pautak emanen dira, eskola jarduera ez-presentzialarekin bateragarriak diren formatuetan.

5. Tutoretzako arretaren esparruan, **irakasleek ikasleekin egiten duten esku-hartzea koordinatuko da**, ikasleek ez dezaten gehiegizko lan kargarik izan, eta behar besteko laguntza jaso dezaten. Horretarako, irakasle taldea beharrezkotzat jotzen den guztietan bilduko da (aurrez aurre edo ez), eta akta jasoko da.

5. Curriculuma eta programazioak

1. Hirugarren hiruilekoan, irakasleek **berreskuratze, berrikuste eta indartze jarduerak** egingen dituzte, ikasle bakoitzaren berriazko premiak inoiz baino gehiago kontuan hartuta, eta, hala behar bada, lehendik lortutako ikaskuntzak zabaltzeko jarduerak ere bai, ikasle guztiei edo batzuei zuzendurik.

2. Ziklo edota departamentu didaktikoen eta arloetako, irakasgaietako eta modulu etako arduradun diren irakasleek **programazio didaktikoa berrikusiko dituzte**, hasieran aurreikusitako edukien, ikaskuntzen eta gaitasunen garapena egokituzko.

3. Programazioak **malgu hartuko dira**, bereziki etapa amaierako titulu bat ematen duten ikasmailatan, ikasleek titulu hori eskuratu ahal izan dezaten.

4. Ahal den neurrian, irakasleek **jarduera globalizatzaileak eta diziplinartekoak** egingen dituzte, helburu izanik gaitasunak eskuratzea, edukiak baino gehiago.

6. Ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulua ematea

A) Ebaluazioa

1. Irakasleek ikaskuntzen **ebaluazio sistema** egokituko dute, ikasleek ikasturtea gal ez dezaten eta beren prestakuntzan aurrera egin dezaten, bereziki kontuan harturik ikasle zaurgarrienen egoera.

2. Ikasturte bakoitzerako aurreikusitako **ebaluazio irizpideak** aldatuko dira, eta alde batera utziko da horiek zehatz-mehatz bete beharra; bereziki baloratuko dira garrantzitsuenak diren ikasketak eta ikasturte bakoitzeko hezkuntza prozesuan jarraitzeko ezinbestekoak direnak, eta behar diren egokitzapenak egingen dira, maila eta etapa zein diren.

3. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua **hiruhilekotan banaturik** mantenduko da, eta hiru hiruilekoak kalifikatuko dira.

4. Ebaluazio prozeduran **askotariko ebaluazio modalitateak** erabiliko dira; autoebaluazioa eta koebaluazioa, adibidez. Nolanahi ere, ikaskuntzei buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartuko dira.

5. **Hiruhilekoak kalifikatzeko hasieran aurreikusi ziren irizpideak** egoera berrira egokituko dira, baita proba objektiboak, lanak eta behaketak ere, eta era egokian haztatuko dira.

6. **Hirugarren hiruilekoa ebaluatzean**, azpimarratuko da ebaluazio horren izaera **jarraitua, diagnostikoa, hezigarria eta integratzailea**, etapa, ziklo eta irakaskuntza guztietan.

7. Ebaluazio horren bidez, **ikasleen lanak eta dedikazioa lehenetsiko dira**, hura egiteko, orain arte ikastetxe bakoitzak ikasleekin komunikatzeko erabiliko bide bera erabiliko da.

8. Modu ez-presentzian egin behar badira **amaierako bi ebaluazioak, arrunta eta berezia**, amaierako proba objektiboak egiten ahalko dira online, edo proposatutako lan batzuk eginaraztea, edo biak uztartu.

9. Ikasleek ikasturtean lortu dituzten ikaskuntzen **amaierako ebaluazioan**, kontuan hartuko dira ikasturte osoko ebaluazioak, eta bereziki baloratuko da zenbateraino garatu diren aurretik definituriko ikaskuntza eta gaitasun ezinbestekoak.

10. Ikasleen amaierako emaitzak ez dira inola ere okerragoak izanen hirugarren hiru hilekoan metodologia ez-presentzian erabili izanak sortu dituen zailtasunen eraginez. **Amaierako kalifikazioa** zein den erabakitzeke, oinarri hartuko dira, nagusiki, lehenbiziko bi hiru hilekoetan ikasleek izan dituzten emaitzak, eta gorantz haztatuko dira, hirugarren hiru hilekoan egindako lanaren ebaluazioa kontuan hartuta.

11. Irakasle taldeek **banakako balorazio txosten** bat egingen dute, ikasleek ikasturtean egindako lana baloratzeko, eta hartan jasoko da atzerapenik egon ote den, eta horiek berreskuratzeko plan bat.

B) Mailaz igotzea

1. Arau orokorra izanen da ikasleak mailaz igotzea, maila eta etapa guztietan, eta maila errepikatzea ohiz kanpoko neurria izanen da; argudio sendoak eman beharko dira horretarako, eta irakasle talde guztiak egin beharko du proposamena.

2. Irakasle taldeak hala proposatzen duenean soilik aztertuko da **errepikatzeke aukera**. Errepikatzeke proposamen guztiak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio, justifikazio txosten bat erantsita.

C) Titulua ematea

1. Etapa bakoitzeko ikasleek **titulua jasoko dute**, oro har. Horretarako, titulua jasotzeke eskatzen diren irizpideak egokituko dira, eta ezohiko probak antolatzen ahalko dira, hautazkoak, berreskuratzeko eta titulua jasotzeke, atal batzuk alde batera utzita, beharrezkoa bada.

2. Irakasle taldeak hala proposatzen duenean soilik aztertuko da **titulurik ez ematea**. Titulurik ez ematea erabakitzen bada, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

7. 2020-2021 ikasturterako prestatzea

2020-2021 ikasturterako, curriculum eta ikasturteke hezkuntza jarduerak egokitzeke eta berreskuratzeko planak antolatuko dira, ikasle guztiek aurrera egin dezaten. Ikasturte honen bukaeran egiten diren banakako txostenak egonen dira plan horien oinarrian. Jarraibide hauek osatzeko, aurrerago, argibideak emanen dira, ereduak proposatuko dira eta baliabide informatikoak gaituko dira, irakasleek errazago egin ahal izan ditzaten txosten horiek.

B) BERARIAZKO JARRAIBIDEAK, IKASKUNTZEN ETA ETAPEN ARABERA

I. LEHEN HEZKUNTZA

1. Egutegia

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 10eko 263/2019 Ebazpenean adierazitako egutegiari jarraituko zaio. Ebazpen horren bidez, jarraibideak eman ziren 2019-2020 ikasturteko eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxeetarako.

2. Ebaluazio irizpideak

Oro har, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek **ez dute aurreikusiko** aurretik programatuta zeuden **ebaluazio irizpideak zehatz-mehatz betetzea**. Ebaluazioa holistikoa izanen da, eta batez ere kontuan hartuko da ea lortu diren eduki, gaitasun eta ikaskuntza garrantzitsuenak eta hezkuntza prozesuan jarraitzeko ezinbestekoak direnak.

Ebaluazio irizpide horiek **diagnostikoak eta hezigarriak** izanen dira.

3. Ebaluazio prozedurak

Ebaluazioaren jarraitutasuna dela-eta, Lehen Hezkuntzako ebaluazio prozedurak ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan egindako **egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira**.

Ebaluazioaren **izaera jarraitua, diagnostikoa eta hezigarria** lehenetsiko da.

4. Mailaz igotzeko irizpideak

Hezkuntzako maila guztietan, arau orokorra izanen da ikasleak **mailaz igotzea**, kontuan hartu gabe kalifikazio negatiboa duten arlo kopuruari buruz ezarritako muga.

Helburu horrekin, aldaketak eginen dira Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 22ko 72/2014 Foru Aginduan, zeinaren bidez arauak ezartzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko.

Maila berean **urte bat gehiago eman beharra** ohiz kanpoko neurria izanen da. Irakasle taldeak proposatzen badu soilik hartuko da erabaki hori, ikastetxeko hezkuntza orientazioaren departamentuak horren aldeko txostena eman ondoan eta familiei entzunaldia eman ondoan. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari eta, hala behar bada, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaie, justifikazio txosten bat erantsita.

Lehen Hezkuntzan, **banakako balorazio txostenak** garrantzi berezia izanen du 6. mailatik DBHra pasatuko diren ikasleen kasuan. Informazioa eta orientabideak emanen ditu,

eta zehaztuko du ezinbesteko zer ikaskuntza ez diren eskuratu hezkuntza jarduera presentziala etetearen ondorioz.

II. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

1. Egutegia

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, aurki emanen da egungo eskola egutegia aldatzeko ebazpen bat, irizpide hauetan oinarrituko dena:

a) **Hirugarren hiruhilekoaren bukaera**, barnean direla bai ebaluazio saioak, bai notak ematea: maiatzaren 25era arte, hori barne.

b) **Ebaluazioen berreskuratzeak** egitea (bigarrena eta hirugarrena), hiru hiruhilekoen **errepassoa**, **amaierako ebaluazio arrunta** (ebaluazio saioak eta gainditu gabekoenak barne) eta, azkenik, notak ematea: maiatzaren 26tik ekainaren 8ra arte.

c) **Amaierako ebaluazio berezia** (testuinguruari egokitutako probak): ekainaren 8tik 19ra.

2. Ebaluazio irizpideak

Oro har, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek **ez dute aurreikusiko** aurretik programatuta zeuden **ebaluazio irizpideak zehatz-mehatz betetzea**. Batez ere kontuan hartuko dute ea lortu diren eduki, gaitasun eta ikaskuntza garrantzitsuenak eta hezkuntza prozesuan jarraitzeko ezinbestekoak direnak.

Ebaluazio irizpide horiek **diagnostikoak eta hezigarriak** izanen dira.

DBHko ikasleen **ebaluazioa integratzailea izanen da, taldean adostua**, eta lehentasuna emanen zaie etaparako ezarritako helburu orokorrak lortzeari eta gaitasunak garatzeari, irakasgai bakoitzeko ebaluazio irizpide berariazkoak gainditzeari baino gehiago.

3. Ebaluazio prozedurak

Ebaluazio prozedurak ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan egindako **egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira**.

Hala ere, kontuan harturik ebaluazioa **etengabea, hezigarria eta integratzailea** izanen dela, lehenetsiko da aurreko ebaluazioetan oinarritzea, baina epe honetan egindako jarduerak ere ebaluatuko dira, ikaslearen onerako baldin bada.

Hirugarren hiruhilekoaren ebaluazioa, betiere, **diagnostikoa eta hezigarria** izanen da, eta, hura egiteko, jarduera presentziala eten zenetik ikastetxe bakoitzak ikasleekin komunikatzeko erabilitako bide bera erabiliko da.

4. Mailaz igotzeko irizpideak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izan beharko da DBHko ikasleak, oro har, **mailaz igotzea**, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 28. artikulua esparruan.

Errepikatzea ohiz kanpoko neurria izanen da.

Maila berean beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da, eta ikastetxeko hezkuntza orientaziorako departamentuak horren aldeko txostena eman beharko du. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

Ikasle bat **curriculum egokituko programa** batean, **ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa** batean, **Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa ziklo** batean edo hezkuntza arloko administrazioek araututako beste programa espezifiko batean sartzeko erabakiak hartuko dira baldin eta irakasle taldeak uste badu aukera horiek direla egokienak ikasleak derrigorrezko hezkuntza arrakastaz buka dezan.

5. Titulua emateko irizpideak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburu nagusia da DBHko ikasleei, oro har, **titulua ematea**, kontuan hartuta etaparako ezarritako helburu orokorrak eta zenbateraino garatu dituzten gaitasunak, betiere Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 31. artikuluan ezarritako esparruan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan **titulua ez emateko erabakia** ohiz kanpoko kasuetan hartuko da, irakasle taldeak proposaturik, eta ikastetxeko hezkuntza orientazioaren departamentuak horren aldeko txostena eman beharko du. Titulua ez ematea erabakiz gero, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

III. BATXILERGOA

1. Egutegia

Batxilergoko lehenengo mailari dagokionez, aurki emanen da egungo eskola egutegia aldatzeko ebazpen bat, irizpide hauetan oinarrituko dena:

a) **Hirugarren hiruhilekoaren bukaera**, barnean direla bai ebaluazio saioak, bai notak ematea: maiatzaren 25era arte, hori barne.

b) **Ebaluazioen berreskuratzeak** egitea (bigarrena eta hirugarrena), hiru hiruhilekoen **erreposoa, amaierako ebaluazio arrunta** (ebaluazio saioak eta gainditu gabekoenak barne) eta, azkenik, notak ematea: maiatzaren 26tik ekainaren 8ra arte.

c) **Amaierako ebaluazio berezia** (testuinguruari egokitutako probak): ekainaren 8tik 19ra.

Batxilergoko bigarren mailarako, behar denean emanen dira behar diren jarraibideak.

2. Ebaluazio irizpideak

Oro har, departamentu didaktikoek **ez dute aurreikusiko** Batxilergorako programatuta zeuden **ebaluazio irizpideak zehatz-mehatz betetzea**. Batez ere, etapako ezinbesteko ikaskuntzak baloratuko dira, garrantzitsuenak, eta, horrekin batera, ikasleak bere kasa ikasteko eta lantaldean ikasteko gaitasuna eta ikerketa metodo egokiak aplikatzeko gaitasuna.

Ebaluazio irizpide horiek **diagnostikoak eta hezigarriak** izanen dira.

Zilegi izanen da **ebaluazio integratua** egitea, baina erreferentzia gisa harturik gaitasunak zenbateraino eskuratu diren eta etapako helburuak zenbateraino bete diren.

3. Ebaluatzeko prozedurak

Ebaluazio prozedurak ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan egindako **egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira**.

Dena dela, kontuan harturik ebaluazioa **etengabea eta hezigarria** izanen dela, lehenetsiko da aurreko ebaluazioetan oinarritzea, baina epe honetan egindako jarduerak ere ebaluatuko dira, ikaslearen onerako baldin bada.

Hirugarren hiruhilekoaren ebaluazioa, betiere, **diagnostikoa eta hezigarria** izanen da, eta, hura egiteko, jarduera presentziala eten zenetik ikastetxe bakoitzak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan ikasleekin komunikatzeko erabilitako bide bera erabiliko da.

4. Mailaz igotzeko irizpideak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen mailgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izan beharko da Batxilergoko ikasleak, oro har, **mailaz igotzea**, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 36. artikuluan ezarritakoaren esparruan. **Errepikatzea ohiz kanpoko neurria** izanen da.

Lehenengo mailan beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

Lehenengo mailako irakasgai guztiak gaindituak ez badituzte ere, **ikasleak bigarren mailako jarraipen irakasgaietan matrikulatzen ahalko dira**.

Irakasgai guztiak gainditu gabe mailaz igotzen diren ikasleak gainditu ez dituzten irakasgaietan matrikulatu beharko dira, eta haiek berreskuratzeko planak izanen dituzte.

5. Titulua emateko irizpideak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da ohikoena izatea **titulua ematea** Batxilergoko ikasleei, kontuan hartuz, batetik, ikasleak irakasgai guztietan oro har izan duen bilakaera, eta, bestetik, bere heldutasun akademikoa etapako helburuei eta horiei loturiko gaitasunei dagokienez. Betiere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 37 artikuluan ezarritako esparruaren barruan.

Titulua ez emateko erabakia, Batxilergoan, ohiz kanpoko egoeretan hartuko da. Irakasle taldeak erabaki horren berri emanen dio Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari, justifikazio txosten bat erantsita.

IV. LANBIDE HEZIKETA

1. Egutegia

Lanbide Heziketari dagokionez, aurki emanen da egungo eskola egutegia aldatzeko ebazpen bat, irizpide hauetan oinarrituko dena:

1.1. Erdi eta goi mailako zikloak.

Modalitate presentzialeko lehenengo maila / Ziklo egokitueta lehenengo eta bigarren mailak / LH erdi presentzialeko zikloetako lehenengo eta bigarren mailak (3 mailatan egiten direnak) / LH on line modalitateko zikloak:

a) Hirugarren hiruilekoaren bukaera, horren barne dela ebaluazio partzialeko azken saioa eta ikasleei jakinaraztea gainditu dituzten moduluak eta gainditu gabe utzi dituztenak: maiatzaren 25etik aurrera, kontuan harturik ekainaren 5a dela azkeneko eguna ikasleei jakinarazteko zein modulu gainditu dituzten eta zein utzi dituzten gainditu gabe.

b) Moduluren bat gainditu gabe duten ikasleentzako berreskuratze programa egitea, amaierako ebaluazioa egitea (amaierako ebaluazio saioa barne) eta, azkenik, amaierako ebaluazioko notak ematea: ikasleei gainditu dituzten eta gainditu gabe utzi dituzten moduluen gaineko erabakiak jakinarazi eta biharamunetik hasita ekainaren 19ra arte, biak barne.

Modalitate presentzialeko zikloetako bigarren mailarako / Ziklo egokitueta hirugarren mailarako / LH erdi presentzialeko zikloetako bigarren eta hirugarren mailarako (2 edo 3 mailatan egiten diren), beharrezkoa denean behar diren jarraibideak emanen dira.

1.2 Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak

Oinarrizko Lanbide Heziketako lehenengo mailarako, antolaketa-irizpide hauei jarraikiko zaie:

a) Hirugarren hiruhilekoaren bukaera, barnean direla bai ebaluazio saioak, bai notak ematea: maiatzaren 15era arte, hori barne.

b) Berreskuratze partzialak egitea (bigarrena eta hirugarrena), hiru hiruhilekoen errepasoa, amaierako lehenbiziko ebaluazioa (ebaluazio saioak barne) eta, azkenik, notak ematea: maiatzaren 18tik ekainaren 5era arte.

c) Amaierako bigarren ebaluazioa (testuinguruari egokitutako probak): ekainaren 8tik 19ra.

2. Ikaskuntzaren emaitzak. Ebaluazio irizpideak:

2.1. Erdi eta goi mailako zikloak:

▪ 1. maila:

2020-2021 ikasturtearen hasiera arautzeko jarraibideak onesteko urteroko ebazpenean ezarriko da prozedura egoki bat ikasturte honetako ohiz kanpoko egoeragatik garatu ezin izan diren lanbide modulueterako.

Oro har, heziketa zikloen kasuan, departamentu didaktikoek ez dute aurreikusiko zehatz-mehatz betetzea lanbide modulu bakoitzerako programatutako ikaskuntza-emaitzak. Gainera, kontuan har daiteke ikaskuntza-emaitza horietako batzuk hirugarren hiruhilekorako prestakuntza-aurreikuspenetan sartu ahal izatea, eta ikaskuntza horri ekin zaiola hasierako hiruhilekoetakoak ez diren baldintzetan, eta baldintza horiek ezberdinak izan direla ikasle batetik bestera. Horretarako, programazio didaktikoetan zehaztutako ebaluazio irizpideak malgutuko dira ahalik eta ikasle gehienek lortu ahal ditzaten ikaskuntza-emaitza horiek, betiere kasuan kasuko lanbide modulua gainditzeko eskatzen diren ikaskuntza-emaitzak zenbateraino lortu diren zehatz-mehatz adierazteari dagokionez.

Ikasteko metodologia berriak aplikatu diren Lanbide Heziketako ziklo eta moduluetan, proiektu metodologikoan nabarmenago zehaztu diren gaitasunak lortzeko mailak ere malgutuko dira.

Ebaluazio malgotu hori diagnostikoa eta hezigarria izanen da.

Ebaluazioa integratua eta adostua izanen da, eta ebaluatzeko erreferentziak honako hauek izanen dira: heziketa zikloaren helburu orokorrak, heziketa zikloaren gaitasun orokorra lortu den, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren arabera kasuan kasuko tituluari dagozkion lanbide kualifikazioetakoak eta, hala denean, gaitasun unitateak.

▪ 2. maila:

Ikaskuntzaren emaitzak eta haiei dagozkien ebaluazio irizpideak berriz definitu beharko dira, nahiz eta erreferentzia gisa hartzen dituzten Lantokiko Prestakuntza moduluan eta Proiektua moduluan ezarritakoak, kontuan hartuz zein baldintzatan garatzen ari den modulu horiei dagokien prestakuntza jarduera.

2.2. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak:

▪ 1. maila:

2020-2021 ikasturtearen hasiera arautzeko jarraibideak onesteko urteroko ebazpenean ezarriko da prozedura egoki bat ikasturte honetako ohiz kanpoko egoeragatik garatu ezin izan diren lanbide moduluetarako.

Oro har, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxeek ez dute aurreikusiko zehatz-mehatz betetzea lanbide modulu bakoitzerako programatutako ikaskuntza-emaitzak. Horretarako, programazio didaktikoetan zehaztutako ebaluazio irizpideak malgutuko dira ahalik eta ikasle gehienek lortu ahal ditzaten ikaskuntza-emaitza horiek, betiere kasuan kasuko lanbide modulua gainditzeko eskatzen diren ikaskuntza-emaitzak zenbateraino lortu diren zehatz-mehatz adierazteari dagokionez.

Gaitasun unitateei lotuak ez dauden lanbide moduluen kasuan, bereziki baloratu behar dira bizitza osoan etengabe ikasteko gaitasun nagusiak, hezkuntza prozesuan jarraitzeko ezinbestekoak direnak. Era berean, DBHko graduatu titulua lortzeko ebaluazioari dagokionez, jarraibide hauetan DBHko ikasketei buruz ezarritakoari jarraikiko zaio.

Ikasteko metodologia berriak aplikatu diren Lanbide Heziketako ziklo eta moduluetan, proiektu metodologikoan nabarmenago zehaztu diren gaitasunak lortzeko mailak ere malgutuko dira.

Ebaluazio malgotu hori diagnostikoa eta hezigarria izanen da.

Oinarrizko Lanbide Heziketaren ebaluazioa integratua eta adostua izanen da, eta ebaluatzeko erreferentziak honako hauek izanen dira: heziketa zikloaren helburu orokorrak, heziketa zikloaren gaitasun orokorra lortu den, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, eta lanbide kualifikazioetakoak eta, hala denean, gaitasun unitateak. Erreferentzia gisa hartuko da, orobat, etengabe ikasteko gaitasunak eskuratzea. DBHko graduatu titulua lortzeko ebaluazioa ere egiten bada, jarraibide hauetan DBHko ikasketei buruz ezarritakoari jarraikiko zaio.

▪ 2. maila:

Lantokiko Prestakuntza moduluen ikaskuntza-emaitzak eta ebaluazio irizpideak malgotu eta egokituko dira, prestakuntza jardura hori zer baldintzatan garatzen den kontuan hartuta.

3. Ebaluatzeko prozedurak

Ebaluazio prozedurak egokituko dira modalitate ez-presentzian eman diren moduluetarako zehaztutako ikaskuntza-emaitzei aplikatu beharreko ebaluazio irizpideen arabera, baita hirugarren hiruilekoan egindako egokitzapen metodologikoen arabera ere.

3.1. Erdi eta goi mailako zikloak:

A) Modalitate presentziala:

Kontuan harturik ebaluazioa etengabea eta hezigarria izanen dela, lehenetsiko da aurreko ebaluazioetan oinarritzea, baina epe honetan egindako jarduerak ere ebaluatuko dira, ikaslearen onerako baldin bada.

Hirugarren hiru hilekoaren ebaluazioa, betiere, diagnostikoa eta hezigarria izanen da, eta, hura egiteko, kontuan hartuko da nolako arreta eman zaion ikasleari irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren bitartean.

B) Urrutiko modalitatea:

Ikastetxeek aukera izanen dute, azkeneko proba presentzialen ordeztu, proba telematikoa egiteko, edo beste ebaluazio jardura bat. Lehenengo kasuan, haien ponderazioa mantendu beharko dute modulu bakoitzaren azken kalifikazioa kalkulatzeko; eta azken kalifikazio horretan, gainera, ikasturtean zehar izandako ebaluazio prozesuak ere aintzat hartu beharko dituzte.

Aurrekoa gorabehera, ikasleek urtean zehar egindako jarduerari buruz irakasleek biltzen dituzten datuak erabakigarriak izanen dira moduluaren azken kalifikazioa ezartzeari begira.

C) Modalitate erdi presentziala:

Modu presentzian egiten diren modulu zatiei dagokienez, atal honen a) letran modalitate presentzialerako ezarritakoari jarraikiko zaio.

Irakasleen urrutiko tutoratzapean eta ikastetxe bakoitzak ezarritako prozedura erabiliz ikasleek, lan saio autonomoen bidez, egiten dituzten modulu zatiei dagokienez, atal honen b) letran urrutiko modalitaterako ezarritakoari jarraikiko zaio.

3.2. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak

Kontuan harturik ebaluazioa etengabea, hezigarria eta integratzailea izanen dela, lehenetsiko da aurreko ebaluazioetan oinarritzea, baina epe honetan egindako jarduerak ere ebaluatuko dira, ikaslearen onerako baldin bada.

Hirugarren hiru hilekoaren ebaluazioa, betiere, diagnostikoa eta hezigarria izanen da, eta, hura egiteko, jardura presentziala eten zenez geroztik ikastetxe bakoitzak ikasleekin komunikatzeko erabilitako bide bera erabiliko da.

4. Mailaz igotzeko irizpideak

4.1. Erdi eta goi mailako zikloak

Ziklokako ebaluazioa arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 5eko 21/2019 Foru Agindua aldatzeko asmoa dago, bakar-bakarrik 2019-2020 ikasturterako eta salbuespen gisa, malgutze neurri batzuk ezartzeko ikasleak mailaz igotzeko prozesuari buruz eta zikloan gelditzeko irizpideei buruz.

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da, Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako zikloetan, ohikoena izatea **mailaz igotzea**.

Errepikatzea ohiz kanpoko neurria izanen da.

Lehenengo mailan beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da. Erabaki hori Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinaraziko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

Hurrengo mailara lanbide modulu guztiak gainditu gabe igotzen direnak, hurrengo ikasturtean, bigarren mailan matrikulatuko dira, eta gainditu gabe utzitako moduluetan ere bai. Ikasle horiek Hezkuntzari buruzko martxoaren 5eko 21/2019 Foru Aginduan adierazitako berreskuratze programa eduki beharko dute.

4.2. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak.

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak, oro har, **mailaz igotzea**, otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren 23. artikuluan ezarritako esparruan (errege dekretu horren bidez, hezkuntza sistemaren lanbide heziketako irakaskuntzetako Oinarrizko Lanbide Heziketaren berariazko alderdiak arautu ziren).

Errepikatzea ohiz kanpoko neurria izanen da.

Maila berean beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da, eta ikastetxeko hezkuntza orientaziorako departamentuak horren aldeko txostena eman beharko du. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

5. Titulua emateko irizpideak

5.1. Erdi eta goi mailako zikloak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako zikloetako ikasleei, oro har, **titulua ematea**, kasuan kasuko tituluaren gaitasun orokorra eskuratzeko printzipio orokorrak aintzat hartuz. Hala badagokio, foru agindu bidez ezarriko diren malgutze neurriak aplikatuko dira, betiere maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 43 artikuluan ezarritako esparruaren barruan.

Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako zikloetan **titulua ez emateko erabakia** ohiz kanpoko kasuetan baizik ez da hartuko, irakasle taldeak proposaturik, eta ikastetxeko hezkuntza orientazioaren departamentuak horren aldeko txostena eman beharko du. Titulua

ez ematea erabakiz gero, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

5.2. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei, oro har, titulua ematea, kontuan hartuta irakaskuntza horiek etengabeko izaera dutela eta hezigarriak eta integratzaileak direla. Erabaki hori hartzeko orduan, kontuan hartuko dira Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloaren gaitasun orokorra eta gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, baita, halaber, bizitza osoan etengabe ikasteko gaitasunak eskuratu dituenetz ere. Betiere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 43 artikuluan ezarritako esparruaren barruan.

Oinarrizko Lanbide Heziketan **titulua ez emateko erabakia** ohiz kanpoko kasuetan hartuko da, irakasle taldeak proposaturik, eta ikastetxeko hezkuntza orientazioaren departamentuak horren aldeko txostena eman beharko du. Titulua ez ematea erabakiz gero, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

Ikasle horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeari dagokionez, malgutze irizpideak kontuan hartuko dira, jarraibide hauetan DBHko titulua emateko orduan aplikatzeko ezarritakoak bezalatsukoak, hain zuzen.

V. ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO LANBIDE IRAKASKUNTZAK.

1. Egutegia

Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzei dagokionez, aurki emanen da egungo eskola-egutegia aldatzeko ebazpen bat, irizpide hauetan oinarrituko dena:

Lehenengo mailarako

a) Hirugarren hiruhilekoaren bukaera, horren barne dela ebaluazio partzialeko azken saioa eta ikasleei jakinaraztea gainditu dituzten moduluak eta gainditu gabe utzi dituztenak: ikastetxeek maiatzaren 25etik aurrera antolatzen ahalko dute, kontuan harturik ekainaren 5a dela azkeneko eguna ikasleei jakinarazteko zein modulu gainditu dituzten eta zein utzi dituzten gainditu gabe.

b) Moduluren bat gainditu gabe duten ikasleentzako berreskuratze programa egitea, amaierako ebaluazioa egitea (amaierako ebaluazio saioa barne) eta, azkenik, amaierako ebaluazioko notak ematea: ikasleei gainditu dituzten eta gainditu gabe utzi dituzten moduluen gaineko erabakiak jakinarazi eta biharamunetik hasita ekainaren 19ra arte, biak barne.

Bigarren mailarako, behar denean emanen dira behar diren jarraibideak.

2. Helburuak. Ebaluazio irizpideak:

▪ 1. maila:

2020-2021 ikasturtearen hasiera arautzeko jarraibideak onesteko urteroko ebazpenean ezarriko da prozedura egoki bat ikasturte honetako ohiz kanpoko egoeragatik garatu ezin izan diren prestakuntza modulueterako.

Oro har, heziketa zikloen kasuan, departamentu didaktikoek ez dute aurreikusiko zehatz-mehatz betetzea prestakuntza modulu bakoitzerako programaturako helburuak. Gainera, kontuan har daiteke helburu horietako batzuk hirugarren hiru hilekorako prestakuntza-aurreikuspenetan sartu ahal izatea, eta ikaskuntza horri ekin zaiola hasierako hiru hilekoetakoak ez diren baldintzetan, eta baldintza horiek ezberdinak izan direla ikasle batetik bestera. Horretarako, programazio didaktikoetan zehaztutako ebaluazio irizpideak malgutuko dira ahalik eta ikasle gehienek lortu ahal ditzaten helburu horiek, betiere kasuan kasuko prestakuntza modulua gainditzeko eskatzen diren helburuak zenbateraino lortu diren zehatz-mehatz adierazteari dagokionez.

Ikasteko metodologia berriak aplikatu diren Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzako ziklo eta moduluetan, proiektu metodologikoan nabarmenago zehaztu diren gaitasunak lortzeko mailak ere malgutuko dira.

Ebaluazio malgotu hori diagnostikoa eta hezigarria izanen da.

Ebaluazioa integratua izanen da, taldean adostua, eta ebaluatzeko erreferentziak honako hauek izanen dira: heziketa zikloaren gaitasun orokorra eta lanbide gaitasunak eskuratu diren, eta prestakuntza modulu bakoitzeko helburuak bete diren.

▪ 2. maila:

Enpresa, estudio eta lantegietako praktikaldiaren helburuak eta ebaluazio irizpideak malgotu eta egokituko dira, kontuan hartuta zer baldintzatan garatzen den prestakuntza jarduera hori.

3. Ebaluazio prozedurak

Ebaluazio prozedurak ikasturtearen hirugarren hiru hilekoan egindako egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira.

Kontuan harturik ebaluazioa etengabea eta hezigarria izanen dela, lehenetsiko da aurreko ebaluazioetan oinarritzea, baina epe honetan egindako jarduerak ere ebaluatuko dira, ikaslearen onerako baldin bada.

Hirugarren hiru hilekoaren ebaluazioa, betiere, diagnostikoa eta hezigarria izanen da, eta, hura egiteko, kontuan hartuko da nolako arreta eman zaion ikasleari irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren bitartean.

4. Mailaz igotzeko irizpideak

2019-2020 ikasturterako, salbuespen gisa, malgutze neurriak hartuko dira zikloan jarraitzeari dagokionez, eta, horretarako, aldaketak egingen dira Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 20ko 63/2014 Foru Aginduan, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzetako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ziurtapen akademikoa.

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzetako ikasleak, oro har, **mailaz igotzea**, maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 19. artikuluan ezarritako esparruan (errege dekretu horren bidez ezarri zen Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzen antolamendu orokorra).

Lehenengo mailan beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da. Erabaki hori Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinaraziko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

Hurrengo mailara lanbide modulu guztiak gainditu gabe igotzen direnak, hurrengo ikasturtean, bigarren mailan matrikulatuko dira, eta gainditu gabe utzitako moduluetan ere bai. Ikasle horiek abuztuaren 20ko 63/2019 Foru Aginduan adierazitako berreskuratze programa eduki beharko dute.

5. Titulua emateko irizpideak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzetako erdi eta goi mailako zikloetako ikasleei, oro har, **titulua ematea**, kasuan kasuko heziketa zikloaren gaitasun orokorra eskuratzeko printzipio orokorrak aintzat hartuz. Kasua bada, ezarritako malgutze neurriak aplikatuko dira, betiere Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 19.8 artikuluan ezarritakoaren esparruan.

Ohiz kanpoko kasuetan baizik ez da hartuko Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzetako erdi eta goi mailako zikloetan **titulua ez emateko erabakia**, irakasle taldeak proposaturik, eta ikastetxeko hezkuntza orientazioaren departamentuak horren aldeko txostena eman beharko du. Titulua ez ematea erabakiz gero, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

VI. ARAUBIDE BEREZIKO KIROL IRAKASKUNTZAK.

2019-2020 ikasturterako, salbuespen gisa, malgutze neurriak hartuko dira irakaskuntza hauetan jarraitzeari dagokionez, eta, horretarako, aldaketak egingen dira Hezkuntzako kontseilariaren urriaren 21eko 93/2014 Foru Aginduan, zeinaren bidez arautzen baitira

Nafarroako Foru Komunitateko araubide bereziko kirol irakaskuntzetako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ziurtapen akademikoa.

Kirol irakaskuntzetako zikloek antzekotasunak dituzte Lanbide Heziketako zikloetako lehen mailekin; ildo horretan, jarraibide hauetan ezarritakoari jarraituko zaio, irakaskuntza hauen berezko malgutasunari egokiturik, honako hauei dagokienez: egutegia, ebaluazio irizpideak, ebaluazio prozedurak, titulua emateko irizpideak eta maila berean gelditzeko irizpideak.

Izaera finalista dute erdi mailako LOE kirol irakaskuntzen hasierako eta bukaerako zikloek eta erdi mailako LOGSE kirol irakaskuntzen lehenengo eta bigarren mailak. Horri dagokionez, Lanbide Heziketako heziketa zikloen bigarren ikasmilaren parekoak dira.

Kirol irakaskuntzetako goi mailako zikloak ikasturte batekoak dira; hortaz, hauek ere Lanbide Heziketako heziketa zikloen bigarren ikasmilaren parekoak dira.

2020-2021 ikasturtera atzeratuko dira irakaskuntza hauetan sartzeko nahitaez gainditu beharreko kirol proba berariazkoak.

VII. ARAUBIDE BEREZIKO HIZKUNTZA IRAKASKUNTZAK

1. Egutegia

. **Ikasturte amaierako egutegia** honako ebazpen hauetan ezarritakoari egokituko zaio, oro har: Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 401/2019 Ebazpena, jarraibideak onesten dituena Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren antolaketa eta jarduna 2019-2020 ikasturtean arautzeko; eta Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 405/2019 Ebazpena, jarraibideak onesten dituena Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialen antolaketa eta jarduna 2019-2020 ikasturtean arautzeko.

Irakaskuntza presentzial eta erdi presentzialeko ikastaroetan, irizpide hauei jarraikiko zaie:

a) **Eskola aldiaren bukaera:** oro har, maiatzaren 21ean, etengabeko ebaluazioa barne, mailaz igotzeko irizpide gisa kontuan hartzen den kasuetan.

b) **Ziurtapen proba bateratuen egutegia.** Otsailaren 25eko 57/2020 Ebazpenean ezarritako egutegiari jarraituko zaio, non eta ez den egutegia aldatu beharrik, dagokion ebazpenaren bidez, luzatzen delako 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako alarma egoera (COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko Errege Dekretua).

2. Ikasle ofizialak mailaz igotzeko irizpideak

a) A1, A2, B2.1 eta C2.1 mailetako ikasleak. Departamentu bakoitzeko programazioetan ezarritakoari jarraikiz igoko dira mailaz.

b) B1, B2.2 eta C1 mailetako ikasleak. Mailaz igotzen ahalko dira, irizpide hauetako bati jarraituz:

1. Etengabeko ebaluazioa: irakasleek maila-igoera baieztatzeko ebidentzia nahikoa dutenean.
2. Gutxienez ere %50eko batezbestekoa lortuta kasuan kasuko ziurtapen proban.

c) Maila berean beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

3. Ziurtagiria emateko irizpideak

Ziurtagiria eskuratu nahi badute, urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretuari jarraikiz, proba bat gainditu beharko dute A2, B1, B2.2, C1 eta C2.2 mailetako eta That's English-eko ikasle ofizialek, ikasle libreek, irakasleentzako tokian tokiko ingeles ikastaroetakoek eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko (NUHEO) lankidetzaren programetan parte hartzen duten Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleek. Proba hori 2019-2020 ikasturtean egingen da, otsailaren 25eko 57/2020 Ebazpenean ezarritako egutegiarekin bat, non eta ez den egutegi hori aldatzen, alarma egoera dela-eta dekretaturiko egoeraren ondorioz.

Urtarrilaren 31ko 21/2020 Ebazpeneko ziurtapen irizpideak aplikatuko dira, baina zehaztapen batzuk kontuan hartuta, ikusirik arreta presentziala bertan behera gelditu dela COVID-19aren eraginez, eta hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen interes orokorra bermatzeko, hala ezarri baita alarma egoera deklaratu zenetik eta COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeari dagokionez. Hona hemen zehaztapen horiek:

- Proba guztietan aipatzen diren iraupenak "gehienekoak" dira.
- Aukera ematea bide telematikoak edo presentzialak erabiltzeko ahozko adierazpenaren eta ahozko bitartekaritzaren probak egitean, COVID-19ak eragindako osasun krisian horiek egiten direla bermatzearen.
- Helburu hori lortzeko, euskarria ahozkoa izaten ahalko da, ezarritako luzera eta denborak gehienekoak izanen dira, eta erregistraturik geldituko da, erreklamaziorik balego.

4. Deialdia kontuan hartzea eta matrikulari uko egitea

Maila errepikatzea hautatzen duten ikasle ofizialei eta NUHEOko programetakoei ez zaie kontuan hartuko 2019-2020 ikasturteko deialdia.

VIII. MUSIKAKO LANBIDE IRAKASKUNTZAK

1. Egutegia

Musikako lanbide irakaskuntzei dagokienez, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 14ko 278/2019 Ebazpenean ezarritakoari jarraikiko zaio, horren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko musikako lanbide irakaskuntzek eta dantzako irakaskuntza ez-arautuek 2019-2020 ikasturtean izanen duten eskola egutegia prestatzeko jarraibideak.

2. Ebaluazio irizpideak

Ikasmaila eta irakasgai edo arlo bakoitzerako aurreikusitako ebaluazio irizpideak malgutuko dira, eta alde batera utziko da horiek zehatz-mehatz bete beharra; bereziki baloratuko dira irakaskuntza bakoitzaren helburu orokor eta berariazkoak lortzeko egindako aurrerapenak.

Ebaluazio irizpide horiek diagnostikoak eta hezigarriak izanen dira.

3. Ebaluazio prozedurak

Ebaluazio prozedurak ikasleei egindako egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira.

Hirugarren hiru hilekoaren ebaluazioa, betiere, diagnostikoa, hezigarria eta jarraitua izanen da, eta, hura egiteko, kontuan hartuko da nolako arreta eman zaion ikasleari irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren bitartean.

Ebaluazio honetan, aurreko ebaluazioak hartuko dira kontuan, baita hirugarren hiru hilekoko eskola jarduera ere, ikasleen onerako baldin bada.

4. Mailaz igotzeko irizpideak

Irakasle taldeak, bere autonomia eta eskumenak baliatuz, bere esku dituen malgutze neurri guztiak aplikatuko ditu ebaluazio eta kalifikazio irizpideak moldatzeko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan gertatu den ohiz kanpoko egoera honetara. Neurri horien helburua izanen da musikako lanbide irakaskuntzetako ikasleak, oro har, **mailaz igotzea**, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako musikako lanbide irakaskuntzen curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dituen abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuaren 12. eta 14. artikuluetan ezarritako esparruan.

Errepikatzea ohiz kanpoko neurria izanen da.

Musikako lanbide irakaskuntzetako ikasturtearen hasiera arautzeko jarraibideak ematen dituen ebazpenean xedatuko dira instrumentu-praktikan gainditu gabe uzten diren irakasgaiak berreskuratzeko baldintzak. Era berean, zilegi izanen da, 6. mailako ikasleen kasuan, ebaluazio positiboa emateko zain dauden irakasgaiak malgutzeko agintzea.

5. Maila berean gelditzeko irizpideak

Maila berean beste urte bat gelditzeko erabakia irakasle taldeak proposaturik hartuko da. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, justifikazio txosten bat erantsita.

6. Berariazko sarrera probak

Irakaskuntza hauetan sartzeko nahitaez gainditu beharreko berariazko sarrera probak atzeratuko dira, probak egitea posible den arte.

IX. MUSIKAKO GOI MAILAKO ARTE IRAKASKUNTZAK

1. Egutegia

Hezkuntzako zuzendari nagusiak maiatzaren 14an emandako 277/2019 Ebazpenean xedatutakoari jarraikiko zaio, horren bidez arautzen baita Nafarroako Foru Komunitatean musikako goi mailako arte irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen eskola egutegia 2019-2020 ikasturterako, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokituta. Salbuespen bakarra izanen da ebazpen horren eranskineko 2.e) eta 10. puntuetan ezarritakoa, aurrerago emanen den ebazpen baten bidez aldatuko baitira.

2. Ebaluazio prozesua

Ebaluazio prozedurak ikasturtearen bukaera partean egindako egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira.

Ikasketen amaierako lanaren defentsa atek itxita egingen da, eta ikaslea, laguntzailea(k) eta epaimahaia baizik ez dira bertara sartuko. Azkenean aurkezpen presentziala egiterik ez badago, beste neurri batzuk hartuko dira.

Gainerako alderdiei dagokienez, Hezkuntzako kontseilariak abenduaren 27an emandako 210/2010 Foru Aginduaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Musikako gradu goi mailako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa eta titulua arautu ziren.

3. Titulua emateko irizpideak

Hezkuntzako kontseilariak abenduaren 27an emandako 210/2010 Foru Aginduaren 11. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Musikako gradu goi mailako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa eta titulua arautu ziren.

4. Maila berean gelditzeko irizpideak

Hezkuntzako kontseilariaren 45/2018 Foru Agindua aldatuko da, ikasturte honetako inguruabarrak direla-eta ukituak izan diren ikasleak, oro har, beste urte bat gehiago egon ahal izan daitezen irakaskuntza hauetan, ezarritako gehieneko epea urtebete luzatuko baita.

Gehieneko urte kopuru hori handituta ere, ez da aldatuko gehieneko deialdi kopurua, zeina Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 27ko 210/2010 Foru Aginduaren 8. artikuluan ezarrita baitago. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Musikako gradu goi mailako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa eta titulua arautu ziren.

5. Berriazko sarrera probak

Inguruabarrak ikusita posible baldin bada, musikako goi mailako arte irakaskuntzetan sartzeko probak ekainaren 22tik 26ra egingen dira, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Azkenean, probak modu presentzian egiterik ez badago, beste neurri batzuk hartuko dira. Prozesuari buruzko informazioa berriaz sortutako webguneko fitxan argitaratuko da aldian-aldian.

X. DISEINUKO GOI MAILAKO ARTE IRAKASKUNTZAK

1. Egutegia

Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 14ko 276/2019 Ebazpenean xedatutakoari jarraikiko zaio. Ebazpen horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitatean diseinuko goi mailako arte irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen eskola egutegia 2019-2020 ikasturterako, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokituta.

2. Ebaluazio prozesua

Ebaluazio prozedurak ikasturtearen bukaera partean egindako egokitzapen metodologikoetara moldatuko dira.

Ikasketen amaierako lanaren defentsa atekak itxita egingen da, eta ikaslea eta epaimahaia baizik ez dira bertara sartuko. Azkenean aurkezpen presentziala egiterik ez badago, beste neurri batzuk hartuko dira.

Gainerako alderdiei dagokienez, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 5eko 30/2013 Foru Aginduaren 9. eta 10. artikuluetan xedatutakoari jarraikiko zaio. Foru agindu horren bidez, diseinuko goi mailako ikasketen plana eta antolamendua ezarri ziren Nafarroako Foru Komunitatean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruan.

3. Titulua emateko irizpideak

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 5eko 30/2013 Foru Aginduaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio. Foru agindu horren bidez, diseinuko goi mailako ikasketen plana eta antolamendua ezarri ziren Nafarroako Foru Komunitatean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruan.

4. Maila berean gelditzeko irizpideak

Hezkuntzako kontseilariaren 30/2013 Foru Agindua aldatuko da, ikasturte honetako inguruabarrak direla-eta ukituak izan diren ikasleak, oro har, beste urte bat gehiago egon ahal izan daitezen irakaskuntza hauetan, ezarritako gehieneko epea urtebete luzatuko baita.

Gehieneko urte kopuru hori handituta ere, ez da aldatuko gehieneko deialdi kopurua, zeina Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 5eko 30/2013 Foru Aginduaren 15. artikuluan ezarrita baitago. Foru agindu horren bidez, diseinuko goi mailako ikasketen plana eta antolamendua ezarri ziren Nafarroako Foru Komunitatean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruan.

5. Berriazko sarrera probak

Inguruabarrak ikusita posible baldin bada, diseinuko goi mailako arte irakaskuntzetan sartzeko probak ekainaren azkeneko astean egingen dira. Azkenean, probak modu presentzialean egiterik ez badago, beste neurri batzuk hartuko dira. Prozesuari buruzko informazioa berriaz sortutako webguneko fitxan argitaratuko da aldian-aldian.

XI. HELDUEI EUSKARA IRAKASTEKO IRAKASKUNTZA (ZUBIARTE EUSKALTEGIA).

1. Egutegia

. Ikasturteko **azken egutegiari** dagokionez, oro har, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ekainaren 25eko 389/2019 Ebazpenari jarraikiko zaio, horren bidez onetsi baitziren Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2019-2020 ikasturtean arautzeko jarraibideak. Ekainean eta uztailan ez da izanen eskola egun osagarririk.

Irakaskuntza presentzial eta erdi presentzialeko ikastaroetan, irizpide hauei jarraikiko zaie:

a) **Eskola aldiaren bukaera:** oro har, ekainaren 5ean, etengabeko ebaluazioa barne, mailaz igotzeko irizpide gisa kontuan hartzen den kasuetan.

b) **Ziurtapen proben egutegia.** Deialdia irailaren 9ko 31/2019 Ebazpenean ezarritako egutegiari jarraikiz egingen da, non eta ez den posible aurreikusitako epean egitea, luzatzen delako 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako alarma egoera (COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko Errege Dekretua). Osasun egoera ikusita posible bada, Zubiarte euskaltegiak ziurtagiria emateko proben datak egokitzen ahalko ditu, ikasle eta irakasleentzako segurtasun neurri egokiak bermatzearen.

2. Mailaz igotzeko irizpideak

a) A1 eta A2 mailetako ikasleak. Urteko programazioetan ezarritakoari jarraikiz igoko dira mailaz.

b) B1 eta B2 mailetako ikasleak. Hurrengo mailara igoko dira irakasleek igoera baieztatzeko ebidentzia nahikoa dutenean.

3. Ziurtagiria emateko irizpideak

A1, A2, B1 eta B2 mailetako ikasle ofizialek 2019-2020 ikasturtean administratuko diren ziurtapen probak egiten ahalko dituzte Hezkuntzako zuzendari nagusiaren irailaren 9ko 31/2019 Ebazpenean ezarritako egutegiari jarraikiz, salbu eta, alarma egoera dela kausa, aldaketaren bat ezartzen bada. Ebazpen horren bidez, arauak onetsi ziren Zubiarte euskaltegi publikoan helduei euskara irakasteko irakaskuntza ez-arautuei dagokien 2019-2020 ikasturteko eskola egutegia prestatzeko. Osasun egoera ikusita posible bada, Zubiarte euskaltegiak ziurtagiriak emateko probak egokitzen ahalko ditu, ikasle eta irakasleentzako segurtasun neurri egokiak bermatzearen.

Ziurtagiriak emateko irizpideak, maila bakoitzeko programazioetan ezarritakoak izanen dira.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

HEZKUNTZAKO ZUZENDARI
NAGUSIA

LANBIDE HEZIKETAREN ZUZENDARI
NAGUSIA

Gil Sevillano González

Tomás Rodríguez Garraza